

LEHIAKETA ARAUDIA



GIPUZKOAKO TRAINERILA TXAPELKETA

1. ARTIKULUA.- ALDERDI OROKORRAK

1. Gipuzkoako Trainerila Txapelketa Gipuzkoako Arraunketa Federazioak antolatzen duen lehiaketa ofiziala da.
2. Gipuzkoako Trainerila Txapelketa bi jardunalditan (bi estropadatan) jokatuko da; hau da, sailkapen-estropada bat egongo da lehenbizi, eta ondoren Gipuzkoako txapelketa jokatu den estropada. Sailkapen-estropada Gipuzkoako Trainerila Ligaren azken jardunaldiarekin batera joka daiteke, ala ez.
3. Gipuzkoako Trainerila Txapelketa antolatzea Gipuzkoako Arraunketa Federazioari bakarrik dagokio. Nolanahi ere, Gipuzkoako Trainerila Txapelketa eta sailkapen-estropada antolatzeko nahiz gauzatzeko edozein pertsona eta entitateren laguntza izan dezake Gipuzkoako Arraunketa Federazioak.
4. Gipuzkoako Trainerila Txapelketa arautzeko araudi honetan jasotakoa erabiliko da, alde batetik, eta, bestetik, gertaera horrekin zerikusia duten organo eskudunek onartzen dituzten akordio eta ebazpenak.
5. Gipuzkoako Trainerila Txapelketarekin batera Gipuzkoako Federazioaren Trainerila Saria antolatuko da.

2. ARTIKULUA.- LEKUA ETA DATA

1. Gipuzkoako Trainerila Txapelketa noiz eta non jokatuko den Gipuzkoako Arraunketa Federazioaren Batzar Nagusiak erabakiko du ohiko saioan.
2. Gipuzkoako Arraunketa Federazioaren egutegia onartu ondoren, Gipuzkoako Trainerila Txapelketa atzeratu ahal izango da justifikaturiko arrazoiren batengatik. Gipuzkoako Trainerila Txapelketa atzeratzea organo hauei dagokie:
 - a) Estropada egunean bertan —hasi aurretik edo estropada jokatu bitartean— gertatu diren zirkunstantziengatik baldin bada, GAFeko Zuzendaritza Batzordeko kideek edo haiek hautatutako pertsonak erabakiko du, Estropadako Epaimahaiak edo presidenteak txostena aurkeztu ondoren eta proban parte hartzen duten delegatuak entzun ostean.
 - b) Aurreko atalean aurreikusitakoez bestelako zirkunstantziengatik baldin bada, Gipuzkoako Arraunketa Federazioaren Lehiaketako Epaille bakarrik erabakiko du.
3. Behin Gipuzkoako Trainerila Txapelketa atzeratzen denean, Gipuzkoako Arraunketa Federazioaren Lehiaketako Epaille bakarrik erabakiko du noiz eta non jokatuko den, baina horrek ez du esan nahi lehiaketa-egutegi ofiziala aldatu denik.

3. ARTIKULUA.- PARTAIDEAK

1. Gipuzkoako Trainerila Txapelketan parte hartu ahal izango dute Gipuzkoako Arraunketa Federazioko kide diren taldeek (euren federazio-betebeharrak egunean baldin badituzte), baldin eta denboraldi berean absolutu mutilen eta nesken kategorian batzarrean onartutako egutegiaren Gipuzkoako Trainerila Ligako estropaden % 80an gutxienez parte hartu badute.
2. Parte hartzen duten taldeetako arraunlari, teknikari eta ordezkariak indarrean eduki beharko dute Gipuzkoako Arraunketa Federazioak tramitaturiko eta Euskadiko Arraunketa Federazioak emandako lizentzia, euren kluba ordezkatzeko dutela frogatzen duena.
3. Gipuzkoako Trainerila Txapelketan klub edo elkarte bakoitzeko talde bakar batek parte hartu ahal izango du kategorian bakoitzean. Gipuzkoako Txapelketaren sailkapen-estropada Gipuzkoako Trainerila Ligaren azken jardunaldiarekin batera jokatzen bada, elkarte bateko trainerila batek baino gehiagok parte hartu ahal izango du kategorian bakoitzean, baina bakar bat soilik sailkatuko da Gipuzkoako txapelketarako.
4. Gipuzkoako Trainerila Txapelketan parte hartu ahal izango dute sailkapen-estropadan araudi honek eskatutako kirol merituak lortu dituzten trainerilek, edo araudi honetan aurreikusten den suposizioen bat gertatzen denean.

4. ARTIKULUA.- KATEGORIAK

1. Gipuzkoako Trainerila Txapelketa ondoko kategorietan jokatuko da:
 - Jubenil neskak

- Jubenil mutilak
 - Absolutu neskak
 - Absolutu mutilak
2. Gipuzkoako Trainerila Txapelketarekin batera Gipuzkoako Eskolarteko Trainerila Txapelketa jokatu ahal izango da; hori arautzeko, aplikagarriak diren araudiak eta Gipuzkoako Arraunketa Federazioaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko hitzarmenak erabiliko dira. Lehiaketa horretan zerbitzu teknikoa Gipuzkoako Arraunketa Federazioak eman badezake ere, ez da lehiaketa federatua izango.
 3. Gipuzkoako Trainerila Txapelketan, kategoria bakoitzean parte hartzen duten taldeak kategoria horretako arraunlariz osatuta egongo dira. Dena dela, kategoria bereko arraunlariek eta beheragoko kategorietako patroik batek osatu ahal izango dute talde bat, betiere pisuari dagozkion arauak betetzen badira; halako taldeak ez dira mistotzat hartuko.
 4. Kategoria batean, Gipuzkoako Trainerila Txapelketan parte hartzeko eskubidea daukaten taldeen (trainerilen) kopurua hiru (3) baino txikiagoa izango balitz, ez da titulu ofizialik emango. Kasu horretan, "Gipuzkoako Federazioaren Trainerila Saria" deituko litzateke, eta partaideek ez lukete aukerarik izango titulu ofizialik eskuratzeko.
 5. Trainerila bat, mistoa izan edo ez, osatzen duten kirolari guztiak genero (sexu) berekoak izango dira, patroia izan ezik.

5.- ARTIKULUA.- PARTE HARTZEKO ESKUBIDEA

1. Betiere klub eta kategoria bakoitzeko talde bakar batek parte hartzearen irizpidea beteaz, Gipuzkoako Trainerila Txapelketan parte hartzeko eskubidea izango dute sailkapen-estropadan lehen 4 (lau) postuetan sailkatu diren taldeek.
2. Gipuzkoako Trainerila Txapelketaren sailkapen-estropadan klub eta kategoria bakoitzeko trainerila bakar batek parte hartu ahal izango du, Gipuzkoako Trainerila Liga izan edo ez.
3. Gipuzkoako Trainerila Txapelketaren sailkapen-estropadan 5. postutik 8. postura sailkatzen diren taldeek (biak barne) eskubidea izango dute Gipuzkoako Federazioaren Trainerila Sarian parte hartzeko; sari hori kategoriaz kategoria jokatu da Gipuzkoako Txapelketaren aurretik.

Gipuzkoako Trainerila Txapelketarako sailkatzen diren eta txapelketa horretan parte hartzen ez duten klubek ezingo dute parte hartu Gipuzkoako Arraunketa Federazioaren Sarian.

Gipuzkoako Trainerila Txapelketan edo Gipuzkoako Arraunketa Federazioaren Sarian hutsik geratzen diren postuak sailkapen-estropadan hasieran batean sailkatu ez baina hurrengo postuak eskuratu dituzten taldeei emango zaizkie.
4. Sailkapen-estropada bertan behera geratuko balitz, Gipuzkoako Trainerila Txapelketa estropada bakar batera jokatu litzateke, izena emanda leudekeen elkarte guztiek parte hartuko lukete, eta taldeek Gipuzkoako Trainerila Ligako azken jardunaldian eskuratutako sailkapenaren arabera erabakiko lirateke txandak. Gipuzkoako Trainerila Txapelketan izena eman duen klubenek batek ez balu parte hartu Gipuzkoako Trainerila Ligan, ligako azken sailkatuaren ondorengo postua eskuratu luke.

Kasu horretan, Gipuzkoako Trainerila Txapelketaren azken sailkapena egiteko denbora guztiak batuko lirateke, kategoria bakoitzean denborarik onena lortuko lukeen taldea izango litzateke irabazlea, eta Gipuzkoako Arraunketa Federazioaren Saria 4. sailkatuari emango litzaioke.
5. Gipuzkoako Trainerila Txapelketarako sailkapen-estropadan, kategoria batean izena ematen duten taldeen kopurua Gipuzkoako Txapelketa jokatu duten taldeen kopuru bera edo txikiagoa bada, talde guztiak sailkatuko dira. Dena dela, taldeek sailkapen-estropadan parte hartu ahal izango dute —nahiz eta zuzenean sailkatuta egon—, baldin eta Gipuzkoako Trainerilen Ligako sailkapenerako balio badu, Gipuzkoako Arraunketa Federazioaren lehiaketa egutegiaren arabera.

6. ARTIKULUA.- TXANDAK ETA KALEEN ZOZKETA

1. Gipuzkoako Trainerila Txapelketako sailkapen-estropadarako txandak, sailkapen estropada jokatzeko denbora momentuko ligako sailkapena kontuan hartuz egingo dira.

Txandak une horretako sailkapenaren alderantzizko ordenan jokatu dira: hau da, 1. txandan, 9. sailkatutik azken sailkatuak egongo dira; 2. txandan, 5. sailkatutik 8. erakoak; eta 3. txandan, 1. sailkatutik 4. erakoak.

2. Gipuzkoako Trainerila Txapelketako sailkapen-estropadako kaleen zozketa ere estropadaren aurretik egindako bileran egingo da, eta antolakuntzak edo hark eskuordetutako pertsonak ezartzen duen moduan gauzatuko da.
3. Gipuzkoako Trainerila Txapelketako txandak automatikoki erabakiko dira, araudi honetako 5. artikuluan jasotakoa aintzat harturik Gipuzkoako Trainerila Txapelketako kaleak ere estropadaren aurretik egindako bileran emango dira, zozketaz, eta antolakuntzak edo hark eskuordetutako pertsonak ezartzen duen moduan.
4. Taldeek sailkapen-estropadan eskuratutako sailkapenaren arabera egingo dira Gipuzkoako Trainerila Txapelketako txandak. Sailkapeneko 4 onenek txapelketa jokatzeko aukera izango dute, eta 5. sailkatutik 8. sailkatura artekoek Federazioaren Saria.

7. ARTIKULUA.- GIPUZKOAKO TRAINERILA TXAPELKETAN IZENA EMATEKO ORRIAK

1. Sailkapen-estropadan, talde edo trainerila bakoitzaren izena emateko orriak —antolakuntzak horretarako prestatutako formatuan— hartuko ditu aintzat Gipuzkoako Trainerila Txapelketako Estropadako Epaimahaiak. Arau hori Gipuzkoako Arraunketa Federazioaren Sarian ere erabiliko da.
2. Gipuzkoako Trainerila Txapelketarako sailkatzen den taldeak sailkapen-estropadako izen-emate orrian adierazi dituen arraunlariekin parte hartu beharko du.
3. Gipuzkoako Trainerila Txapelketa jokatzeko den egun berean aldaketa edo ordezkariak egonez gero, taldeko ordezkariak ordezkari bilera hasten denetik estropada hasi arteko tarteak edukiko du Estropadako Epaimahaiari aldaketa horiek jakinarazteko, baina betiere araudi honetan jasotakoa bete beharko da. Gehienez lau (4) aldaketa egin ahal izango dira —hiru (3) arraunlari eta patroia—, betiere taldearen sailkapen-estropadarako izen-emate orrian ordezkari bezala agertzen badira.

8.- ARTIKULUA.- ESTROPADAREN AURREKO BILERA

1. Ez da delegatu bilerarik egongo. Informazioa Whatsappez bidaliko da.

9. ARTIKULUA.- ORDEZKARIAK

1. Klub bakoitzaren ordezkariaren ardura da Estropadako Epaimahaiak emandako agindu eta jarraibideak bere taldeko kideei jakinaraztea, Gipuzkoako Trainerila Txapelketaren aurretik edo hura jokoan den bitartean.
2. Klubaren ordezkaria izango da klubaren eta bertako kide guztien ordezkari bakarra Estropadako Epaimahaiaren aurrean estropada jokatzeko den egunean. Taldearen izenean eta haren ordezkari egin behar diren tramite guztiak egin beharko ditu izena emateko orrian ordezkari izendatzen denak.
3. Gipuzkoako Trainerila Txapelketan parte hartzen duten elkarten ordezkariak soilik egon ahalko dira haien prestatutako den lekuan, Estropadako Epaimahaiaren ondoan.

10.- ARTIKULUA.- GIPUZKOAKO TRAINERILA TXAPELKETARAKO SAILKAPENA

1. Kategoria bakoitzean Gipuzkoako Trainerila Txapelketa irabazten duen taldearen kluba Gipuzkoako Trainerila txapeldun izendatuko da.
2. Gipuzkoako Trainerila Txapelketaren estropadan bi talde edo gehiago denbora berean sailkatuko balira, postu berean sailkatuko dira, eta gainerako taldeen postuak errespetatu egingo dira. Egoera hori, hau da, berdinketa Gipuzkoako Trainerila Txapelketaren lehen postuan gertatuko balitz, berdinduta geratu diren bi taldeek partekatuko lukete.
3. Estropadako Epaimahaiak edo Gipuzkoako Arraunketa Federazioaren Epaila Bakarrak talderen bat kanporatuko balu, Gipuzkoako Trainerila Txapelketaren sailkapenean DQF bezala agertuko litzateke. Talderen batek estropada bertan behera utziko balu —arrazoia edozein dela ere— Gipuzkoako Trainerila Txapelketaren sailkapenean DNF bezala agertuko litzateke.

11. ARTIKULUA.- KONTROL TEKNIKOA: ESTROPADAKO EPAIMAHAIIA

1. Estropadako Epaimahaiaren eginkizuna izango da Gipuzkoako Trainerila Txapelketa zuzentzea, ikuskatzea eta teknikoki kontrolatzea; epaimahai horretan Gipuzkoako Arraunketa Federazioaren Epaila Eskolako kideak egongo dira.

2. Taldeek, ordezkariaren bidez, erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte Estropadako Epaimahaiaren aurrean, Euskadiko Arraunketa Federazioaren Estropada Kodearen arabera.
3. Estropadako Epaimahaia osatzen duten epaile-arbitroen erabakiak egokitzat jotzen dira, eta Estropadako Epaimahaiak jaso eta izenpeturiko akta beharrezko dokumentua da lehiaketa behar bezala gauzatzeko. Dena dela, konpon litezkeen hutsegite arbitralek —arau teknikoen interpretazio eta aplikazio hutsera mugatzen ez direnak— estropadaren emaitzak aldatzea ekar lezakete, eta, beraz, baita Gipuzkoako Trainerila Txapelketako sailkapena aldatzea ere.

12. ARTIKULUA.- ESTROPADA-KODEA

1. Gipuzkoako Trainerila Txapelketa gainbegiratzeari eta teknikoki kontrolatzeari dagokionez, Euskadiko Arraunketa Federazioaren Estropada Kodeak ezartzen duena erabiliko da.
2. Euskadiko Arraunketa Federazioaren Estropada Kodea erabiliko da Gipuzkoako Trainerila Txapelketan, betiere araudi honetan bestelakorik edo aurkakorik esaten ez den gaietan.

13. ARTIKULUA.- ESTROPADAKO EPAIMAHAIAREN ERABAKIEN AURKAKO ERREKURTSOAK

Estropadako Epaimahaiaren erabakien aurka errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Gipuzkoako Arraunketa Federazioaren Lehiaketako Epaile bakarraren aurrean, Gipuzkoako Trainerila Txapelketa jokatu eta biharamunetik kontatzen hasita bi laneguneko epean. Inpugnazioak epe horretan aurkeztu beharko dira, idatziz, Gipuzkoako Arraunketa Federazioaren egoitzan; gertakariak eta zergatiak azaldu beharko dira, frogak ere bai, eta bereziki aipatu beharko da zer eskatzen den.

Erreklamazioarekin batera 60 euroko fidantza eman beharko da; inpugnazioak aurrera eginez gero, erreklamazioa egin duen pertsonari kopuru hori itzuliko zaio.

14. ARTIKULUA.- LEHIAKETAKO EPAILE BAKARRA

1. Gipuzkoako Arraunketa Federazioaren Lehiaketako Epaile bakarrak eskumena du jakiteko Gipuzkoako Trainerila Txapelketan gertatzen diren eta diziplinakoak ez diren lehiaketako gai oro, betiere haiek ebaztea beste organo baten esku utzi ez bada.
2. Gipuzkoako Arraunketa Federazioaren Lehiaketako Epaile bakarrari araudi honek ematen dizkion ahalmenei eta eskumenei kalterik eragin gabe, entitate horren diziplina-organoaren ardura izango da Gipuzkoako Trainerila Txapelketan eta estropadetan gertatzen diren kirol-diziplinarekin loturiko arau-urratzeak epaitzea eta egileei euren erantzukizuna betearaztea.
3. Gipuzkoako Arraunketa Federazioaren Lehiaketako Epaile bakarraren egitekoa da araudi honen edukiaren gainean sor litezkeen auziak ezagutzea eta ebaztea, bai interpretatzeari dagokionez bai araudi honetan jasotzen ez den auziren bat sortzen bada. Kasu horietan, gertaerak edo zirkunstantziak ikusirik, kirol-lehiaketetan erabili ohi diren printzipioak eta irizpide orokorrak aintzat harturik ebatziko da auzia.
4. Gipuzkoako Arraunketa Federazioko Zuzendaritza Batzordeak izendatuko du Lehiaketako Epaile bakarra, eta Batzar Nagusiak onetsiko du.
5. Gipuzkoako Arraunketa Federazioaren Lehiaketako Epaile bakarraren erabakiak edo ebazpenak interesatuei jakinaraziko zaizkie. Nolanahi ere, indarrean dagoen legeriaren arabera pertsonen ohore- eta intimitate-eskubideak errespetatuz, Gipuzkoako Arraunketa Federazioaren Lehiaketako Epaile bakarrak Gipuzkoako Trainerila Txapelketaren inguruan hartutako erabakiak edo ebazpenak argitaratu ahal izango dira.
6. Gipuzkoako Arraunketa Federazioaren Lehiaketako Epaile bakarraren ebazpenak berehala sartuko dira indarrean, non eta kautelazko etendurarik ez dagoen. Hau da, arau orokor gisa eta arrazoituriko etendurarik ez badago, Gipuzkoako Arraunketa Federazioaren Lehiaketako Epaile bakarraren ebazpen baten aurka erreklamazio edo errekurtsio bat jartzeagatik ez da geldituko, indargabetuko edo bertan behera geratuko erabakitakoa.
7. Gipuzkoako Arraunketa Federazioaren Lehiaketako Epaile bakarraren ebazpenek amaitutzat ematen dute federazio-bidea, eta haien aurkako errekurtsioa aurkez daiteke Kirol Justiziako Euskal Batzordean.

15. ARTIKULUA.- DOPINAREN AURKAKOA

1. Gipuzkoako Trainerila Txapelketan dopina prebenitzeko, kontrolatzeko eta erazteko araudi hauek erabiliko dira:

Gipuzkoako Arraunketa Federazioaren dopinaren aurkako araudian Euskal Arraunketa Federazioak ezarritakoa izango da aplikagarria, eta euskal federazioak izango ditu Gipuzkoako Arraunketa Federazioko txapelketa ofizialetan dopina prebenitzeko, kontrolatzeko eta zigortzeko funtzioak.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA.- KLAUSULA INDARGABETZAILE OROKORRA

Gipuzkoako Trainerila Txapelketan erabiliko den araudi honek, indarrean sartzen den egunetik aurrera, indarrrik gabe uzten ditu txapelketa horretan orain arte erabili diren xedapen, ohitura eta akordio guztiak.

AMAIERAKO LEHEN XEDAPENA.- HIZKUNTZA

Gipuzkoako Trainerila Txapelketan erabiliko den araudi hau euskaraz eta gaztelaniaz aurkezten da. Hizkuntza batean eta bestean adierazitakoaren artean desadostasunik sortuko balitz, euskarazkoa nagusituko da.

REGLAMENTO DE COMPETICIÓN



CAMPEONATO DE GIPUZKOA DE TRAINERILLAS

ARTÍCULO 1.- ASPECTOS GENERALES.

1. El Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas es una competición federada oficial de la Federación Guipuzcoana de Remo.
2. El Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas se disputará a doble jornada (regata), esto es, una "*regata clasificatoria*" y la "*regata del campeonato provincial*" propiamente dicha. La "*regata clasificatoria*" podrá o no ser coincidente con la última jornada de la Liga Guipuzcoana de Trainerillas.
3. La organización del Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas corresponde, en exclusiva, a la Federación Guipuzcoana de Remo. No obstante ello, para la organización y desarrollo de la regata del Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas y su clasificatoria, la Federación Guipuzcoana de Remo podrá contar con la colaboración de cualesquiera personas o entidades.
4. El Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas se regirá por lo previsto en el presente reglamento o normativa de competición y por los acuerdos y resoluciones que sean adoptadas por los órganos competentes para cada aspecto o asunto relacionado con dicho evento.
5. Coincidiendo con la disputa del Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas, se organizará el "Trofeo Federación Guipuzcoana de Trainerillas".

ARTÍCULO 2.- LUGAR Y FECHA DE CELEBRACIÓN.

1. La fecha de celebración y el lugar donde se deba celebrar el Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas será aprobada en sesión ordinaria de la Asamblea General de la Federación Guipuzcoana de Remo.
2. Una vez aprobado el calendario de la Federación Guipuzcoana de Remo, y por causas justificadas, se podrá aplazar la celebración del Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas. El aplazamiento de la celebración del Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas compete a los siguientes órganos:
 - a) Si fuera debido a circunstancias o hechos que sobrevengan el día en el que debía celebrarse -bien antes del inicio, bien durante la regata- será acordado por los miembros de la Junta Directiva de la F.G.R. presentes en la regata o persona en quien delegue, previo informe del Jurado de Regata o de su Presidente.
 - b) Si fuera debido a circunstancias o hechos diferentes a los supuestos previstos en el apartado anterior será acordado por el Juez único de Competición de la Federación Guipuzcoana de Remo.
3. Una vez aplazado el Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas, el Juez único de Competición de la Federación Guipuzcoana de Remo acordará un nuevo señalamiento, esto es, indicará la fecha y el lugar en el que deba celebrarse, sin que dicho extremo tenga la consideración de modificación del calendario oficial de competiciones.

ARTÍCULO 3.- PARTICIPANTES.

1. Podrán participar en el Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas equipos (trainerillas) representantes de clubes adscritos a la Federación Guipuzcoana de Remo, que se encuentren al día en el cumplimiento de sus obligaciones federativas y que además en las categorías senior masculina y absoluta femenina hayan tomado parte en al menos el 80% de las regatas previstas en el calendario aprobado en asamblea de la Liga Guipuzcoana de Trainerillas de la temporada en curso.
2. Los equipos (trainerillas) participantes deberán estar formados por deportistas, técnicos y delegados que estén en posesión de la licencia federativa en vigor tramitada por la Federación Guipuzcoana de Remo y expedida por la Federación Vasca de Remo y a favor del club al que representen.
3. Se permitirá la participación en el Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas de un solo equipo (trainerilla) por cada club y en cada categoría. En el supuesto de que la "*regata clasificatoria*" del Campeonato de Gipuzkoa sea coincidente con la última jornada de la Liga Guipuzcoana de Trainerillas, podrá tomar parte en la misma más de un equipo (trainerilla) por club y categoría pero únicamente uno de ellos optará a la clasificación de la regata del campeonato provincial.
4. Podrán participar en el Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas aquellos equipos (trainerillas) que hubieran logrado en la "*regata clasificatoria*" los méritos deportivos exigidos en este reglamento o normativa de competición o siempre que concurra un supuesto previsto en este reglamento que permita la participación en tal evento.

ARTÍCULO 4.- CATEGORÍAS.

1. El Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas se disputará en las siguientes categorías:
 - Juvenil masculino.
 - Juvenil femenino.
 - Absoluto femenino.
 - Absoluto Masculino.
2. En el Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas no podrán tomar parte equipos (trainerillas) mixtos. A tal efecto, se entenderá por equipos (trainerillas) mixtos aquellos conformados por deportistas de un mismo club, del mismo género (sexo) y de diferente categoría.
3. Los equipos (trainerillas) participantes, en cada categoría, en el Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas deberán estar integrados por deportistas de dicha categoría. No obstante ello, un equipo (trainerilla) podrá estar integrado por remeros de dicha categoría y por un patrón que podrá pertenecer a las categorías inferiores siempre que se cumplan las previsiones reglamentarias en lo que al peso se refiere, sin que por ello sea considerado como equipo (trainerilla) mixto.
4. Si en una categoría el número de equipos (trainerillas) de clubes con derecho a participar en el Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas fuese inferior a tres (3), no se concederá el título oficial propio de tal evento. En dicho supuesto, la competición se disputaría con la denominación de "*Trofeo de la Federación Guipuzcoana de Trainerillas*", sin que los participantes optasen a la obtención de títulos oficiales.
5. Todos los deportistas que conforman un equipo (trainerilla), sea o no mixto, deberán ser del mismo género (sexo), excepto el caso del patrón.

ARTÍCULO 5.- DERECHO A TOMAR PARTE.

1. Respetando el criterio de un solo equipo (trainerilla) por cada club y categoría, tendrán derecho a tomar parte en el Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas de cada categoría, los equipos (trainerillas) que hayan finalizado en las 4 (cuatro) primeras posiciones en la "*regata clasificatoria*".
2. En la "*regata clasificatoria*" del Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas, forme o no parte de la Liga Guipuzcoana de Trainerillas, podrá tomar parte un solo equipo (trainerilla) por club y categoría.
3. Los clubes que hubieran obtenido las posiciones 5ª a 8ª (ambas inclusive) en la regata clasificatoria del Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas tendrán derecho a tomar parte en el "*Trofeo Federación Guipuzcoana de Trainerillas*" que se disputará, en cada categoría, con anterioridad a la disputa del campeonato provincial.

Los clubes que, clasificados para la disputa del Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas, no tomaran parte en el campeonato provincial no podrán participar en el "*Trofeo Federación Guipuzcoana de Remo*".

Las eventuales vacantes, bien el Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas, bien en el "*Trofeo Federación Guipuzcoana de Remo*", serán asignadas a los clubes cuyos equipos (trainerillas), inicialmente no clasificados, hubieran ocupado las siguientes posiciones en la "*regata clasificatoria*".

4. En el supuesto de que se produjera la suspensión de la jornada que tuviera la condición de "*regata clasificatoria*", el Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas se disputará a una regata en la que tomarán parte todos los clubes inscritos, siendo la confección de tandas efectuada en función de la clasificación obtenida por las tripulaciones en la última jornada de la Liga Guipuzcoana de Trainerillas. En el caso de que algún club inscrito para el Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas no hubiera tomado parte en Liga Guipuzcoana de Trainerillas ocupará las posiciones posteriores al último clasificado en la liga.

En tal supuesto, la clasificación final del Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas será realizada por suma de tiempos, resultando vencedor el club cuyo equipo (trainerilla) hubiera logrado en cada categoría un mejor tiempo y correspondiendo el "*Trofeo Federación Guipuzcoana de Remo*" al 4º- clasificado.

5. En el supuesto de que en la "*regata clasificatoria*" del Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas en una categoría el número de clubes cuyos equipos (trainerillas) se hubiesen inscrito sea igual o inferior al de clasificados para la disputa del campeonato provincial, todos ellos quedarán automáticamente clasificados para la disputa de dicho evento. No obstante ello, los equipos (trainerillas) -pese a estar automáticamente clasificados- podrán tomar parte en la "*regata clasificatoria*" si ésta fuere computada en la clasificación de la Liga Guipuzcoana de Trainerillas de conformidad con lo previsto en el calendario de competiciones de la Federación Guipuzcoana de Remo.

ARTÍCULO 6.- CONFECCIÓN DE TANDAS V SORTEO DE CALLES.

1. La confección de tandas de la "*regata clasificatoria*" del Campeonato de Guipúzcoa de Trainerillas se realizará en función de la clasificación en la liga en el momento de la disputa de la misma.

Las tandas se disputarán en orden inverso a la clasificación en ese momento, es decir 1ª tanda estará compuesta del 9º al último clasificado, la 2ª tanda, del 5º al 8º clasificado y la 3ª tanda, del 1º al 4º clasificado.

2. El sorteo de calles de la "regata clasificatoria" del Campeonato de Guipúzcoa de Trainerillas, se realizará igualmente en los locales de la Federación Gipuzkoana de Remo y será llevado a cabo conforme a lo dispuesto por la entidad organizadora o persona en quien delegue.
3. La confección de las tandas del Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas se realizará de manera automática, teniendo en cuenta lo previsto en el artículo 5 de éste reglamento. La asignación de calles en el Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas se efectuará mediante sorteo celebrado en los locales de la Federación y que será realizado conforme a lo dispuesto por la entidad organizadora o persona en quien delegue.
4. Para la confección de las tandas del Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas se realizará en función de la clasificación obtenida por las tripulaciones en la regata clasificatoria. Optando al campeonato las 4 mejores en la clasificatoria y del 5º al 8º puesto de la clasificatoria, optaran al Trofeo Federación.

ARTÍCULO 7.- HOJAS DE INSCRIPCIÓN PARA EL CAMPEONATO DE GIPUZKOA DE TRAINERILLAS.

1. Las hojas de inscripción de cada equipo (trainerilla) en la "regata clasificatoria" - suscritas en el formato oficial dispuesto al efecto por la entidad organizadora - serán obligatoriamente las que serán tomadas en consideración por el Jurado de la Regata para la disputa del Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas. Dicho extremo será igualmente extensivo al Trofeo "Federación Guipuzcoana de Remo".
2. Un equipo (trainerilla) clasificado para la disputa del Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas deberá tomar parte con los mismos deportistas que figurasen en la hoja de inscripción de aquel en la "regata clasificatoria".
3. El mismo día de la disputa del Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas, el delegado de cada equipo (trainerilla) deberá comunicar al Jurado de la Regata los cambios o sustituciones que se hubieran realizado que, en cualquier caso, deberán respetar lo previsto en este reglamento o normativa de competición. Se podrá realizar un máximo de cuatro (4) cambios -tres (3) de remeros y el patrón)- siempre y cuando figuren como suplentes en la hoja de inscripción de dicho equipo (trainerilla) en la "regata clasificatoria".

ARTÍCULO 8.- REUNIÓN PREVIA A LA REGATA.

1. No habrá reunión de delegados. Toda la información se remitirá por Whatsapp

ARTÍCULO 9.- DELEGADOS.

1. El delegado de cada club es el único encargado - y por tanto, responsable - de comunicar a los miembros del mismo cuantas órdenes e instrucciones fueran dadas por el Jurado de la Regata y sus integrantes con ocasión de la reunión previa a la disputa del Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas o durante la disputa del mismo.
2. El delegado de cada club es el único representante de este y sus miembros ante el Jurado de la Regata durante la jornada de la regata. Todos los actos o trámites que deban realizarse en nombre y representación de dicho equipo (trainerilla) participante durante una jornada serán realizados por quien figure como su delegado en la hoja de inscripción.
3. Solamente los delegados de cada club que tome parte en el Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas podrán ubicarse en el lugar habilitado para tal colectivo junto al área donde se encuentre el Jurado de la Regata.

ARTÍCULO 10.- CLASIFICACIÓN DEL CAMPEONATO DE GIPUZKOA DE TRAINERILLAS.

1. El club del equipo (trainerilla) vencedor, en cada categoría, en la regata del Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas será proclamado Campeón de Gipuzkoa de Trainerillas.
2. Si entre dos o más participantes se produjera exaquo (mismo tiempo) en la regata del Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas, ocuparán el mismo lugar en la clasificación, respetándose los puestos de los demás equipos (trainerillas). Si dicha situación afectase al primer puesto en la clasificación el título de Campeón de Gipuzkoa de Trainerillas será compartido entre los clubes empatados.
3. El equipo (trainerilla) que hubiera resultado excluido o descalificado de la regata - por decisión del Jurado de la Regata o por resolución del Juez único de Competición de la Federación Guipuzcoana de Remo - aparecerá en la clasificación del Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas como DQF. El equipo (trainerilla) que hubiera abandonado la regata - e independientemente de las causas - aparecerá en la clasificación del Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas como DNF.

ARTÍCULO 11.- CONTROL TÉCNICO: JURADO DE LA REGATA.

1. La dirección, supervisión y control técnico del Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas corresponde al Jurado de la Regata que estará integrado por personal adscrito al Colegio de Jueces-Árbitros de la Federación Guipuzcoana de Remo.
2. Los equipos (trainerillas), a través de su delegado, podrán presentar reclamaciones ante el Jurado de la Regata de conformidad con lo previsto en el Código de Regatas de la Federación Vasca de Remo.
3. Las decisiones de los jueces-árbitros que integran el Jurado de la Regata en el ejercicio de sus funciones durante la regata se presumen correctas y el acta de la regata suscrita y rubricada por el Jurado de la Regata constituye medio documental necesario en el desarrollo de la competición. No obstante ello, la existencia de errores arbitrales susceptibles de rectificación -y que no consistan en la mera interpretación y aplicación de normas técnicas- podrá conllevar la alteración de los resultados de la regata y, por tanto, de la clasificación del Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas.

ARTÍCULO 12.- CÓDIGO DE REGATAS.

1. En lo relativo al control técnico y supervisión del Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas se estará a lo previsto en el Código de Regatas de la Federación Vasca de Remo.
2. El Código de Regatas de la Federación Vasca de Remo resultará de aplicación en el Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas en todos cuantos aspectos no contradigan o versen sobre materias expresamente previstas en el presente Reglamento de Competición.

ARTÍCULO 13.- RECURSOS FRENTE A LAS DECISIONES DEL JURADO DE REGATAS.

Las decisiones del Jurado de la Regata serán recurribles ante el Juez único de Competición de la Federación Guipuzcoana de Remo en el plazo de dos días hábiles a contar desde el siguiente al de la celebración del Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas. Las impugnaciones deberán ser presentadas en el plazo señalado por escrito en la sede de la Federación Guipuzcoana de Remo, debiendo figurar los hechos y fundamentos, siendo acompañadas de los medios de prueba de los que se valiesen, y con mención expresa a cuanto fuera instado o solicitado por el recurrente.

La presentación de la reclamación irá acompañada de una fianza de 60 € que serán devueltos al reclamante caso de prosperar la impugnación.

ARTÍCULO 14.- JUEZ ÚNICO DE COMPETICIÓN.

1. El Juez único de Competición de la Federación Guipuzcoana de Remo es competente para conocer cuantas cuestiones de índole competicional no disciplinaria se planteasen con ocasión del Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas y cuya resolución no estuviera encomendada a otros órganos.
2. Sin perjuicio de las facultades y competencias conferidas al Juez único de Competición de la Federación Guipuzcoana de Remo por este reglamento, compete al órgano disciplinario de dicha entidad el enjuiciamiento disciplinario-deportivo de cuantas acciones u omisiones se produjeran con ocasión del Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas y sus regatas y de las que pudiera derivar responsabilidad disciplinaria para sus autores.
3. Corresponde al Juez único de Competición de la Federación Guipuzcoana de Remo el conocimiento y resolución de conflictos que sobre el contenido de la presente normativa pudieran generarse, bien sobre su interpretación, bien como consecuencia de la inexistencia de una disposición que contemple un supuesto de hecho planteado. Tales casos o supuestos, a la vista de los hechos planteados y circunstancias concurrentes, se resolverán teniendo presentes principios o criterios generales por los que se rigen las competiciones deportivas.
4. El Juez único de Competición será designado por la Junta Directiva de la Federación Guipuzcoana de Remo y ratificado por la Asamblea General de dicha entidad.
5. Las decisiones o resoluciones del Juez único de Competición de la Federación Guipuzcoana serán comunicadas a quienes tuvieran la condición de interesados en relación con las mismas. No obstante ello, respetando el derecho al honor e intimidad de las personas conforme a la legislación vigente, las decisiones o resoluciones del Juez único de Competición de la Federación Guipuzcoana de Remo con ocasión del Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas podrán hacerse públicas.
6. Las resoluciones del Juez único de Competición de la Federación Guipuzcoana de Remo, salvo que cautelarmente sean suspendidas, serán inmediatamente ejecutivas. Esto es, como norma general y salvo

suspensión razonada, la mera interposición de una reclamación o recurso contra una resolución del Juez único de Competición de la Federación Guipuzcoana de Remo no paralizará, dejará sin efecto o suspenderá lo acordado.

7. Las resoluciones del Juez único de Competición de la Federación Guipuzcoana de Remo, que agotan la vía federativa, podrán ser recurridas ante el Comité Vasco de Justicia Deportiva.

ARTÍCULO 15.- ANTIDOPAJE.

1. La prevención, control y erradicación del dopaje en el Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas se regirá por las siguientes disposiciones normativas:
 - a) Por la Orden de 11 de enero de 1996, por la que se establecen las normas generales para la realización de controles de dopaje y las condiciones generales para la homologación y funcionamiento de laboratorios, no estatales, de control de dopaje en el deporte, y disposiciones normativas que la misma desarrollen, complementen o deroguen.
 - b) Por la Resolución de 21 de diciembre de 2005, de la Presidencia del Consejo Superior de Deportes, por la que se aprueba la lista de sustancias y métodos prohibidos en el deporte, y disposiciones normativas que la misma desarrollen, complementen o deroguen.
2. El Comité Antidopaje de la Federación Guipuzcoana de Remo será el encargado de la llevanza y resolución de aquellas cuestiones que se suscitaren en el área antidopaje con ocasión del Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA.- CLÁUSULA DEROGATORIA GENERAL.

El presente reglamento o normativa de competición por el que se rige el Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas deroga cuantas otras disposiciones, usos y costumbres, o simples acuerdos hubieran regulado o resultado de aplicación en el citado evento hasta la fecha de su entrada en vigor.

DISPOSICIÓN FINAL PRIMERA.- IDIOMA.

El presente reglamento o normativa de competición por el que se rige el Campeonato de Gipuzkoa de Trainerillas se presenta en castellano y euskera. En caso de divergencia entre lo señalado en una y otra lengua, prevalecerá lo previsto en euskera.